

MOZIO ARRUNTA, **Donostian kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeari buruzkoa**

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Donostian kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

2018an, Donostiako Euskara Zerbitzuak San Martin merkataritza guneko hizkuntza paisaiaren azterketa egin zuen, EHUren laguntzarekin. Irakurketa kuantitatiboaren taulan ikus daitekeenez, emaitza hau izan du azterketak hizkuntza paisaiari dagokionez: euskaraz % 3,8 / elebitan: % 14,6 / euskara + beste: % 2,2

Aurten, Bagera elkarteak hiriko erdiguneko establezimenduen hizkuntza paisaia aztertu du, eta jaso dituen emaitzak ere ez dira onak izan. Izan ere, euskara euren erakusleihen agertzen duten saltokien kopurua ez da laurdenera ere iristen (%21,98), gaztelania erakusleihen %95ean agertzen den bitartean.

Behaketa horiek erakusten dute hiriko alor sozioekonomikoa euskalduntzeko lanak beste bultzada bat behar duela, orain arteko garapena motelduta edo etenda dagoelako. Urte asko dira Donostiako Udalak abian duenetik euskararen erabilera merkataritza eta ostalaritzan handitzeko helburu estrategikoa. Sentsibilizazioa eta motibazioa sustatzeko helburuz, hainbat ekintza garatu ditu urtez urte, baina emaitza ez da izaten ari esperotakoa. Azken aldian, hiriko merkataritza erdalduntzen ari deneko pertzepzioa zabalduta dago donostiarren artean.

Alor sozioekonomikoaren hizkuntza portaera fenomeno soziolinguitikoa da, ez da Donostiara mugatzen, eta ez dago Donostiako Udalak eragin dezakeneenaren baitan bakarrik. Besteren artean, nabaria da hizkuntza eskubideak errespetatu beharra ezarriko duen araudi baten gabezia. Euskaldunok babesgabe sentitzen gara merkataritza eta ostalaritza agintzen duen hizkuntza politikaren aurrean, darwinismo gisa izendatu daiteke eta: hizkuntza nagusiek bertakoa den hizkuntza gutxitua irentsi egin dute, ikusezin egiteraino. Horren aurrean, Donostiako Udala ez da hiriko merkataritza eta ostalaritzan euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko gai.

Ziurtasun hori eskainiko dion tresna 123/2008 Dekretua da, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza eskubideei buruzkoa. Baina, dekretu horrek agindutakoa ezartzeko zenbait jarduera abiatu baziren ere, ez du erakunde bultzadarik izan eta, gainera, 204/2010 Dekretuak zehapen araubidea kendu egin zion. Beraz, gaur egun alor sozioekonomikoa euskalduntzeko egiten ari diren saiakera gehienak borondatezko urratsak bultzatzera mugatzen dira.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikako Sailburuordetzari Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza eskubideen dekretua osa dezala zehapen araubidearekin, eta diseinatu eta abian jar dezala merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko plan oso bat, Donostiako errealitatera egokitutakoa, euskalgintzaren, sindikatuen eta arloko patronalaren parte hartzea sustatuz, emaitza neurgarriak emango dituen, eta bost urteko epe muga izango duena.

Donostian, 2020ko urriaren 8an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea